




Lezoko Eskolako Agenda 21

2015-2016
IKASTURTEA

ELIKADURA ETA HONDAKINAK



**DAGOENeko 8. URTEA DUGU LEZOKO
IKASTETXEETAN ESKOLAKO AGENDA
21 PROGRAMA ABIATU GENUENETIK.**

2015/2016 IKASTURTEAN ELIKADURA
JASANGARRIA ETA HONDAKINEN GAIA
LANDU DUGU 800 BAT IKASLEK, BAINA
LANKETAHORRETANEZ GARA BAKARRIK
EGON: IRAKASLEEN, GURASOEN, IKAS-
TETXEETAKO GAINERAKO LANGILEEN
ETA UDALAREN LAGUNTZA IZAN DUGU.
HORREGATIK,

ESTE 8º AÑO DE AGENDA 21 ESCOLAR,
LOS CENTROS ESCOLARES DE LEZO
**HEMOS TRATADO LA ALIMENTACIÓN
SOSTENIBLE Y LOS RESIDUOS.** PARA
ELLO, ALREDEDOR DE 800 ESCOLARES
HEMOS CONTADO CON EL APOYO DE
TODA LA COMUNIDAD ESCOLAR.

¡Muchas gracias!

Mila esker guztioi!



AURKIBIDEA

- 03 NOLAKOA IZAN DA PARTE-HARTZEA?
- 04 ZER EGIN DUGU IKASTURTEAN ZECHAR?
- 10 HERRIKO DIAGNOSIAREN ONDORIOAK
- 12 ESKOLAKO KONPROMISOAK
- 14 UDALARENTZAKO ESKAERAK
- 16 ETA DATOREN IKASTURTEAN, ZER?



NOLAKOA IZAN DA PARTE-HARTZEA?

Maiatzaren 25ean ospatutako Eskolarteko Foroan Lezoko Eskolako Agenda 21en parte garen eragileon partaidetza nolakoa izan den aztertu genuen. Irakasleen eta ikasleen parte-hartzea egokia izan dela adostu dugu. Irakasle ez diren eskolako langileak, Udala eta gurasoak, berriz, bide zuzenean ari dira, baina oraindik pixka bat hobetu dezakete beraien partaidetza Eskolako Agenda 21en gaian.

En el Foro Interescolar celebrado el 25 de mayo evaluamos la calidad de la participación en la Agenda 21 Escolar y, en general, podemos decir que la participación del alumnado y el profesorado es buena, mientras que la de los familiares, los y las empleadas no docentes y el Ayuntamiento, aunque van en buen camino, es mejorable.

Iakasleak

Udala

Irakasleak

Eskolako langileak

Gurasoak



ZER EGIN DUGU

IKASTURTEAN ZE HAR?

IKASTURTE HONETAN ZE HAR
GAUZA MORDOA EGIN DUGU
ESKOLETAN ELIKADURA
IRAUNKORRA ETA HONDAKINAK
LANTZEKO. JARRAIAN LEZOKO
ESKOLA BAKOITZAK BURUTU
DUGUNAREN LABURPENTXOA
DUZUE

LEZO HERRI ESKOLA

Egiten ditugun gosarien eta hamaiketako en inguruko inkesta egin dugu gelan, osasuntsuak diren ala ez ikusteko.

Eskolako irratsaioan elikadura osasuntsuari buruzko saioa egin dugu. Dietista bat ere izan dugu geure artean eta elkarriketa egin diogu.

Lehen-hezkuntzako 6. mailakook barrita energetikoak egin ditugu, kirola egiten dugunean, giharrak energiaz betetzeko.

Lehen-hezkuntzako 4. mailakook elikadura eta hondakinei lotutako kale-ikerketa egiteaz arduratu gara. Emaitzak txundituta utzi gaitu!






Udalak seinalaztatutako ibilbide-
etan zehar txangoak egin ditugu.
Egindako azken ibilbidea, Olatzar-
Lorbide bidea izan zen.

Horietaz gain, beste hamaika
irteera ere egin ditugu: Zumaia-
ko flishera, Eureka Zientzia Museora,
...

Lehen-hezkuntzako 2. mailakook,
begiak estalita eta gainerako
zentzumenez baliatuz, jolasean
ibili gara eligakai ezberdinak
dastatuz.

Gosarian eta hamaiketakoan
bildutako datuekin informazio-
panelak egin ditugu.

Brigada berdearekin plastiko
nahiz bilgarrien eta organikoaren
bilketa egiten dugu. Izan ere, gure
baratzean konposta egiten dugu,
gero ongarri gisa erabiltzeko.
*Umm, zein uzta ederra dugun
jada!*



LEZO INSTITUTUA

1. mailan, hizkuntza-proiektuaren barruan, elikadura jasangarria txertatu dugu.

Araztegira ere joan gara eta uraren zikloaren zati bat ezagutu dugu. Izugarria da gure etxeetako komunitatik zenbat hondakin iristen diren horra!

2. mailan kontsumobideko tailerrak egitera joan gara Donostiara eta, besteak beste, erosketa arduratsu bat egiten ikasi dugu.

Energiaren gaia ere landu dugu eta ikastetxean kokatutako energia-jarraipenerako panela nola funtzionatzen duen aztertu dugu.

3. mailan paisaiari buruzko ezagutza barneratzeko hainbat irteera egin ditugu: Bilbora, Donostiara, etab. Hiri -eta landa- paisaiaren arteko aldeak aztertzeke, Altamira-Bordatxo ibilbidea egin dugu Aitorrekin.


Fraisoron ere egon gara bertako produktuak eta ekoizpen-motak ezagutzeko: Euskolabel etiketa, baratzea, bertako arrazak.

4. mailan hondakinen gaia jorratu dugu. Institutua eta bere inguruan ikertzen aritu gara eta hondakinak gaika ondo sailkatuta eta lurra nahikoa garbi mantentzen dugula ondorioztatu dugu.

Hondakinen gaikako bilketan, orokorrean, neskek eta mutilek ezberdin jokatzeko dugula jabetu gara. Adibidez, eskolako frontoian mutilak elkartzen dira gehienbat eta, batzuetan, lurra zikina edo/eta hondakinak nahastuta uzten dituzte.

Ikasturte amaieran Ariturriko meategira joan gara bizikletaz, gorputz hezkuntza, mugikortasuna eta osasuna uztartuz.

Institutuko Batzorde Berdean orain arte Eskolako Agenda 21en hartutako konpromisoak aztertu ditugu eta, datorren ikasturteari begira, gelaz gela eramango ditugu gogorarazi eta berresteko.







FRUTA		FRUTA EZ DENA	
BERRROGEITA SEI 46	HOGEITA ZARBI 27		
BERRROGEITA HANABOI 55	HOGEITA HANABOI 30		
BERRROGEITA HANABIRU 53	HOGEITA BAT 21		
BERRROGEITA HANABI 2	HANABOI 6		



Haur-hezkuntzakook, batez ere, hondakinen gaia landu dugu. Geletako zaborrontzien kolorea kaleko edukiontzien ezberdina zenez, nahasi egiten ginen, baina aldatu egin ditugu eta, orain, txukun-txukun gabiltza.

Hondakinek egiten duten ibilbidea jarraitu dugu, eskolan sortzen ditugunetik kanporako bidean.

Haur-hezkuntzakoak herriko baratze-parkera joan gara eta baserri batera ere bisita egin dugu. Baratzetan dauden garaiko produktuak ezagutu ditugu eta hauek elikadura osasuntsu eta orekatua lortzeko proposak direla ikasi dugu.

Ikastolako eskola-kurrikulumean txertatu dugu aurtengo gaia.

Otarre elkartearen antzezlanak ikusi dugu eta Aitorrekin zentzumenen tailerra egin dugu gelan.

Lehen-hezkuntzako ikasleok hamaiketako osasuntsua landu dugu. Izan ere, gutako asko hamaiketarako dendan erositako opilak eramaten hasi ginen ikastolara eta, horregatik, astearteetan, gutxienez, frutaren eguna ospatzen dugu, hamaiketakoan fruta jateko.

Txoko berdea apainduz joan gara. Adibidez, frutaren egunetako emaitzak erakusgai jarri ditugu eta hamaiketarako fruta zenbatek ekartzen genuen ikusteko gunea bilakatu dugu.

Lehen-hezkuntzako ikasleok hamaiketakoan plastikozko hondakinak sortzen genituela ikusi dugu eta, horiek murrizteko, adibidez, hamaiketako tupperretan ekartzen hasi gara.

LHko bi mailen arteko harreman estuaren ondorioz, bai frutaren eguna baita zaborra gutxitzearen aldeko kanpaina egin dugu.

Udaberriko giroa aprobetxatuz, irteerak egin ditugu maila ezberdinetan: Xoxolurrera, ogia nola egin ikastera, baserri-eskolara, etab. Udarak seinalizatutako Altamira-Bordatxo itzulia ere egin dugu eta Lezo-Oiartzun mugarrira topatu genuen!

Baratze eta konpostaje saioak jaso ditugu, bai ikasleok bai irakasleek. Izan ere, konpostagunea martxan jarri dugu ikastolan.



Durante el curso escolar hemos llevado a cabo un montón de acciones: visitas para conocer el paisaje, desayunos saludables, actividades para poner en práctica el consumo responsable, talleres divertidos, analizar nuestros hábitos de compra, aprender cómo y qué compostar, cultivar en nuestro proyecto de huerto escolar, etc.

HERRIKO DIAGNOSIAREN

ONDORIOAK

EROSKETA-OHITURAK

Herriko denda eta supermerkatuetatik ibili gara erosketak egiten ari ziren herritarrei beraien ohiturengatik galdetzen eta hona hemen, laburrean, jasotako emaitzak:

- Gehienak egunero edo ia egunero joaten dira erosketak egitera. Hala ere, jende gutxi ikusi dugu herriko dendetan eta azokan erosketak egiten.
- Erosketa-poltsari erreparatuz, jaki freskoek erdia baina pixka bat gehiago suposatzen dute eta, gainerakoa, aurrez prestatutakoak dira.
- Bertako produktuei lehentasuna ematen diete lezoarrek eta dendariari hauen jatorriaz galdetzeko ohitura dute.
- Etxetik erosketa-poltsak edo/eta orga eramateko ohitura dute gehienek, baina badaude dendatik hartzen dituztenak ere, nahiz eta gutxi izan.
- Erosten diren edari arruntenak (esnea, zukuak, garagardoa) normalean brik eta plastikozko botiletan hartzen ditu jendeak.
- Internet bidezko erosketa oraindik ez dago oso errotua Lezon.
- Saldise plazan animalia jatorriko produktuak, barazkiak, frutak, ozpinetakoak eta gozoak topatu ditzakegu, eta baita 2. eskuko arropa saltzen duen postu bat ere. Produktuen laurdena baino gutxiago dira bertakoak edo Gipuzkoakoak, batez ere barazkiak eta gazta. Gainerakoak Espainiako lurralde ezberdinetatik eta atzeritik datoz.
- Etiketa ekologiko gutxi ikusi ditugu bai dendetan zein azokan.



HONDAKINAK AZTERTZEN

Herriko kale eta parkeetan barrena ibili gara, hauen txukuntasuna aztertuz eta honako ondorioak atera ditugu:

- Oro har, kaleak, plazak eta inguruak garbi daude, baina badira gune zikin batzuk: kale Nagusiko taberna-atariak eta Guillermo de Lazón kalea. Lehenean zigarro-mutur piloa ikusi ditugu eta bigarrenean, berriz, edukiontzi eta zintzilikarioen ingurua eta kalea bera, nahikoa zikin aurkitu ditugu.
- Herrian zaborrontzi nahikoa daudela iritzi dugu, nahiz eta Saldise inguruko autobus geltokian eta Aralar kalean batzuk jartzea komeniko litzatekeen. Gaikako zaborrontziak izan arren, orokorrean hondakinak nahastuta ikusi ditugu.
- Auzokonposta egiteko guneak garbiak eta zainduak daudela ikusi dugu.
- Saldise plazan, jendea behealdetik ibiltzen dela jabetu gara eta, hortaz, goialdean dauden edukiontziak behealdera pasatzea komeniko litzatekeela uste dugu.
- Ikastola inguruko lorategi eta kale bazterretan hondakinak ikusi ditugu, agian zaborrontzirik ez dagoelako.





ESKOLEK HARTUTAKO

KON PROMI SOAK

ELIKADURA ETA HONDAKINEN
GAIA AZTERTU DUGU:
IKASTETXEAN HAMAIKETAKO
EGOKIA EGITEN DUGUN,
ESKOLAKO BARATZEA NOLA
ONDU DEZAKEGUN, AZUKRE
ASKO ALA GUTXI JATEN
DUGUN, KALEAK GARBI
ALA ZIKIN DAUDEN, ETAB.
ATERATAKO ONDORIOAK
AZTERTUTA, ZERTAN HOBEITU
BADUGULA IKUSI DUGU
ETA, HORRENBESTEZ, GUK,
LEZOKO IKASLEOK, HONAKO
KONPROMISOAK HARTU
DITUGU

Hamaiketako osasuntsuarekin jarraituko dugu, eta bai gosarian bai gainerako otorduetan fruta eta barazki gehiago hartuko ditugu.

Lehen pausoa hondakinen sorrera murriztea dela badakigun arren, konpromiso hau indartu behar dugu. Horrela, hamaiketakoa eta askaria tupper edo poltsa berrerabilgarrietan eramango ditugu, aluminiozko papera ekidinez.

Hondakinen eta materialen berrerabilpena bultzatuko dugu, gaizki inprimatutako papera beste erabilera batzuetarako erabiliz (gelako oharra idazteko, ...), kartoi-kaxak gelan papera bereizteko jarritz, ...



Ikastetxea eta inguruak garbi eta txukun mantentzen jarraituko dugu, guk gauzak ondo egiteko konpromisoa hartuz eta oker ari direnei lagunduz.

Eskolan edo etxean, hondakin organikoak konpostatzen saiatuko gara, lortzen dugun konposta eskolan dugun baratzean edo etxeko lorategian erabiltzeko. Horretarako, konpostatzera zer eta nola bota daitekeen ikasiko dugu urtero.

Ikastetxeko materialak eskuratzeko orduan, ingurumen irizpideak aintzat hartzeko pausoei aurrera egingo dugu (papera, argitalpenak, antolatutako jaialdietako elikagaiak, tresna elektrikoak, bulegoko materiala -koadernoak, boligrafoak, etab.-)

Kalean gaudenean, txikleak, goxokien bilgarriak eta sortu ditzakegun bestelako hondakinak, dagokion zaborrontzian botako ditugu, lurra eta inguruak ez zikintzeko.



Lezo hobeto ezagutzeko, Udalak seinalaztatutako ibilbideak egingo ditugu ikastetxearekin eta, honela, asteburuan edo oporretan, lagunei edo senideei erakutsiko dizkiegu, osasuntsu mantentzeko.

Mendira ibiltzera ateratzen garenean, oinetako eta jantzi egokiak, ura eta jateko zerbait eramango dugu.


Etxean ere Eskolako Agenda 21en lantzen ditugun gaien inguruko ohitura onak zabalduko ditugu.

Azukredun jaki eta edari asko hartzen dugula ikusi dugunez (freskagarriak, irabiakiak, txokolate hautsak, ...), egunean zehar hauen kontsumoa gutxituko dugu.

Lezoko eta inguruetako elikagaien inguruko informazioa eskuratu eta hauen kontsumoa bultzatuko dugu eskolan, eta baita gurasoen eta senideen artean ere.

Gurasoek Eskolako Agenda 21 programan gehiago parte hartzeko modua aztertuko dugu.

A lo largo de este curso hemos analizado nuestros hábitos alimentarios y la problemática de los residuos y, en base a los resultados, hemos adquirido varios compromisos: incluir más frutas y verduras en nuestra dieta, reducir envoltorios llevando el almuerzo o la merienda en un tupper, mantener limpio el cole, las calles y nuestro entorno, etc.





ZER PROPOSATZEN DIOGU UDALARI?

Herrian egin ditugun kale-ikerketak eta emaitzak oinarritzat hartuz, hauek dira Udalarri zuzendu dizkiogun proposamenak:

- Auzo ezberdinetako kale, plaza eta lorategiak, oro har, garbi badaude ere, zenbait eremutan zikinkeria eta hondakin mota ezberdinak ikusi ditugunez, horiek garbitzea eskatzen dugu.
- Herrian dauden gaikako bilketarako zaborrontzietan hondakinak nahastuta ez botatzeko neurriak jarri.
- Saldise ondoko eta pareko autobus geltokietan zaborrontziak jartzea, lurrian paperak, txikleak eta bestelako hondakinak ez azaltzeko.
- Herritarrek, gremio txikiek eta enpresek Garbiguneak zertarako diren ondo ezagutzera zuzendutako informazio-ekintzak aurrera eramatea.
- Herritarrek egiten dituzten erosketetan erabilera bakarreko plastikozko poltsak ez erabiltzeko kanpaina egitea, eta era berean, herriko denda eta saltokietan doan banatu ez ditzaten lortzeko elkarrizketak abiatzea.
- Erretzea osasunarentzako txarra dela jakinarazteaz gain, zigarro-muturrak lurrera ez botatzeko kanpainaren bat egitea.
- Ikastetxeetara begira, urtero konpostatze-guneetara bisitak antolatzea hondakin organikoa herrian bertan nola kudeatu dezakegun ikusi eta ikasteko.
- Baratza dugun ikastetxeei auzokonpostaguneetatik soberan ateratzen den konposta ematea, ongarri gisa erabiltzeko.
- Herritarrek gure herria garbi mantentzearen garrantziaz jabetzeko ekintza ezberdinak garatzea (sentsibilizazioa, isunak, eta abar).



- Lezoko hondakinen bilketarako zintzilarioen eta ekarpen-guneen inguruak garbi mantentzea.
- Herrian bertan hondakin organikoen zati handiagoa kudeatzeko asmoz, dauden auzokonposta-guneen erabilpena area-gotzeko jarduerak burutzea.
- Herritarren artean azukredun produktu gutxiago jateko eta bertako produktu freskoen kontsumoa sustatzeko ka-paina bat egitea.
- Saldiseko azokan bertako eta garaiko produktuen salmenta bultzatzeko Lezoko edo inguruetakoko nekazari eta ekoizleak egon daitezen bermatzea.
- Ikastetxeekin baratze-parkera bisitaldiak antolatzea, baratzaren funtzionamendua ikusi eta garaiaren arabera zein produktu erein eta bildu daitekeen ezagutzeko.
- Udaleko web gunean elikadura osasuntsu eta jasangarriari buruzko atala sortzea edo iazko foroan aipatu zeniguten Garaikoa aplikazioa bertan txertatzea.
- Kirol eta osasun arloko azpiegituretan elikadura osasungarriari buruzko informazioa herritarren eskura jartzea (aholkuak, etab.).



¿QUÉ LE PROPONEMOS AL AYUNTAMIENTO?

Tras analizar el municipio desde el punto de vista alimentario y de los residuos, hemos expuesto al Ayuntamiento varias propuestas de mejora: implantar medidas para que las personas no mezclen los residuos en las papeleras de recogida selectiva; elaborar una campaña para contra el tabaquismo y la eliminación de las colillas de nuestras calles; continuar con las visitas escolares a los puntos de compostaje comunitario, etc.

ETA HURRENGO IKASTURTEAN, ZER?

2016/2017 ikasturtean MUGIKORTASUN IRAUNKORRA landuko dugu Lezon, Eskolako Agenda 21en parte hartzen duten Oarsoaldeko gainerako ikastetxeekin batera. Oso gai garrantzitsua da, gure eguneroko bizitzan, klima-aldaketan eta osasunean ere eragina baitu.

¿Y EL PRÓXIMO CURSO, QUE?

El próximo curso escolar trataremos la MOVILIDAD SOSTENIBLE, junto con el resto de escuelas de Oarsoalde adheridas a la A21E. Se trata de un tema muy importante, ya que está directamente relacionado con nuestra vida cotidiana, el cambio climático y nuestra salud.

